

HARTZA EHIZATZERA GOAZ

Bertsioa: MICHAEL ROSEN

Ilustrazioak: HELEN OXENBURY

Itzulpena: MANU LÓPEZ GASENI

Azal gogorrean koadernatua. 28,5 x 25,5 cm. 40 or. 15 €

[Hartza ehizatzena goaz](#) (euskaraz)

ISBN 978-84-7681-735-3. Gaur egungo klasikoak.

[Imos cazar un oso](#) (galegoz)

ISBN 978-84-8464-803-1. Tras os montes.

Hartza ehizatzena goaz. Handi bat harrapatzeko irrikaz.

Hau egun ederra! Ez goaz ikaraz.

Hara! Belardi bat! Belar altu kulunkaria.

Ezin gara gainetik joan. Azpitik joan ezin.

O, ez! Belar artetik joan beharko!

Aita batek eta haren lau seme-alabek abentura zirraragarri bati ekin diote belardi batean zehar, ibai baten bestaldean, baso batean barrena... harik eta leize batera iritsi diren arte; han hartz bat agertu zaie eta izututa etxera bueltatu dira aurretik egindako bidea atzera ibiliz. Kantu tradizional batetik abiatuta, Michael Rosen-ek egitura errimatuko testu xalo bat egin du, kontakizunaren klimaxean ekintza guztien ordena atzekoz aurrera jartzen duena. Zer datorren aurreikus daitekeen neurrian, oso testu egokia da irakurtzen ez dakitenentzat zein lehen irakurleentzat. Familiaren mugimenduak islatzen dituzten onomatopeiak tartekatzen dituen neurrian, berriz, ahaztutako eta haurrak narrazioan sarrarazteko soinu-giro ezin hobea sortzen duen kontakizun dinamikoa da.

Ikuspegi plastikotik, "Hartza ehizatzena goaz" portadan bertan hasten da eta, guardak barne, naturako paisaje ederrak irudikatzen dituzten orrialde bikoitzeko akuarelak eskaintzen ditu. Helen Oxenbury-k -pertsoneiak sortzeko bere seme-alabak eta bere txakurra ere baliatu baitzituen- ikus-jolasa egiten du zuri-beltzeko eta koloretako irudiak tartekatuz, familiak eragozpen bakoitzari aurre egin behar dion unea eta protagonistaren garapena bereizteko.

Suspense sentsazioa areagotuz doan neurrian, tonu argitsu eta arinetatik kolore trinko eta ilunetarantz jotzen duten ilustrazioak dira.



2. argitalpena: iraila, 2018

- **Gala:** familia baten abenturak.
- **Gomendatutako adina:** 4 urtetik aurrera.
- **Alderdi azpimarragarriak:** egitura errepikaror eta errimatua; mendia, animaliak; meteorologia-fenomenoak; astia familian; onomatopeiak, soinu-efektuak, motrizitatea.
- **Liburu-aurreerapena:**
<https://issuu.com/kalandraka.com/docs/hartza-ehizatzena-goaz-eusk>

Michael Rosen

(Harrow, Middlesex, 1946)

Oxfordeko Wadham College delakoan ikasketak bukatutakoan BBC hasi zen lanean, 1969an, eta haurrentzako hezkuntza-telebistarako gidogile aritu zen. 90eko hamarkadan haur literaturari buruzko formazioa osatu zuen Reading eta North London unibertsitateetan. Gai horri buruzko eskolak eman ditu Londreseko Unibertsitatean. Gaur egun BBC komunikazio-taldeko eta hainbat telebistetako kolaboratzailea da. Hainbat sari jaso ditu, hala nola, Children's Laureate delakoa 2009an, eta ohore akademikoak Exeter, Nottingham eta East London unibertsitateetan, besteak beste. Frantses gobernuak Arte eta Letretako Zaldun izendatu zuen. Irakasleen Elkarte Nazionalak Fred eta Anne Jarvis saria eman zion 2010ean.

www.michaelrosen.co.uk

Helen Oxenbury

(Ipswich, Erresuma Batua, 1938)

Ipswicheko Arte Eskolan eta Londreseko Arte eta Diseinu Eskola Nagusian egin zituen ikasketak, azken honetan ezagutu zuen bere senarra, John Burningham, egile eta marrazkigilea. Antzerki konpainietan, ABC telebista katean eta Shepperton zine estudioetan aritu da disenatzaile eta eszenografia lanetan. 1967az geroztik ibilbide luzea egin du haur liburuak idazten eta ilustratzen. Milioika ale saldu ditu mundo osoan zehar. Birritan jaso du Katee Greenaway domina eta Kurt Maschler Saria, eta hirutan Smarties Book Saria, Liburuzainen Elkarte Britainiarraren aipua ahaztu gabe.

www.**Kalandraka**.com
comunicacion@kalandraka.com

www.  **Pamiela**.com
ctxea
soltxate@pamiela.com